



elika

Fundación Vasca para la Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunarako Euskal Fundazioa

la comunicación en el contexto del análisis de riesgos KOMUNIKAZIOA ARRISKUEN ANALISIAREN MARKOAN

Laburpena

Elikagaien kontsumoaren ondorioz, herritarrek izan ditzaketen arriskuak aurreikusteko edo murrizteko, oinarri zientifikoa duten erabaki politikoak hartu behar dira, hots, arriskuaren analisia gauzatu behar da. Artikulu honek komunikazioaren garrantzia lantzen du.


Komunikazioa arriskuaren anasiaren hiru faseetako bat da, eta prozesuaren fase guztietan praktikan jartzeko ezinbesteko osagaiak ematen dira. Krisialdian komunikazioa, erreaktiboa denez, prebentzio politiketatik at geratzen da, eta, ondorioz, arriskuaren analisisatik at.

Sarrera

Elikagaien Segurtasunari buruzko Prebentzio Politikak **arriskuaren analisiaren** izan behar du oinarria (178/2002 zk.ko Araudia (EB)). Arriskuaren analisia arriskuak ulertzeko, eta ahal den neurrian, murrizteko egituraturiko prozesua da. Lehenengo fasean zientzia-aholkularitza ematen da; bigarrean, beharrezkoa bada,

arriskua murrizteko aukera egokienak eta hirugarren fasean komunikazioa. Azken fase horrek aurreko biak hartzen ditu bere baitan; izan ere, arriskuaren balioztatpena eta kudeaketa eraginkorki eta gardenki gauzatzeko ezinbesteko baldintza da komunikazioa.

1





elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa



la comunicación en el contexto del análisis de riesgos KOMUNIKAZIOA ARRISKUEN ANALISIAREN MARKOAN

Sarrera

Arriskuen komunikazioak arriskuen analisiarako taldekideei eta kanpoko interesatuei informazio egokia eta zehatza ematen laguntzen du. Halaber, horiengandik informazioa jasotzeko aukera ematen du, prozesu osoa hobetze aldera.

Oro har, “kanporantz bideraturiko” prozesutzat hartzen da arriskuen komunikazioa. Horrek arrisku bati buruzko informazio argia eta egokia, eta kudeatzeko beharrezko neurriak ematen ditu. Zeregin nagusietako bat hori izanik ere, ez dugu ahaztu behar “kanpotik jasotako” komunikazioak ere garrantzi handia duela. Kanpoko komunikazio horren bidez, erabakiak hartzen dituzten arduradunek alderdi interesdun

guztien informazioa, datuak eta iritziak jasotzen dituzte.

Definizioa (Kodex Alimentarius)

“ Arriskuen komunikazioa ”

Arriskuen analisiaren prozesu osoan ematen den informazio eta iritzi truke interaktiboa da Arriskuen Komunikazioa. Informazio eta iritzi horiek arriskuekin zerikusia duten faktoreei buruzkoak dira; baita arriskuak balioztatzeaz arduratzen direnek, kudeatzaileek, kontsumitzaileek, industriak, zientzialariek eta beste zenbait alderdi interesdunek arriskuei buruz izaten dituzten pertzepzioei buruzkoak ere.

2

Komunikazioa ez da jakinaraztea, hitz egitea baizik



Komunikazioa arriskuaren analisiaren markoan

1 Arriskuaren analisiaren komunikaziorako ezinbesteko osagaiak

Arriskuak hobeto ulertzeko alderdi interesdun guztien arteko komunikazioa ezinbestekoa da **arriskuaren analisiaren prozesu osoan**; izan ere, alderdi interesdunen datu zientifikoak, iritziak eta erabakiak jasotzeko aukera ematen

du, eta, bide batez, erabakiak ohartuki hartzen laguntzen du. Horrela, arriskuaren kudeaketan adostasun handiagoa lortzeaz gain, erabaki egokiagoak hartzen dira.



Komunikazioa arriskuen analisiaren markoan

Arazoa identifikatzea: informazioa duten alderdi guztien arteko komunikazio irekia baliagarria da oso landu beharreko gaia zehatz-mehatz definitzeko. Arazoa iturri ezberdinek nabarmendu dezakete; baina, arazoaren definizioan aurrera egiten den heinean, beharrezkoa da gaian jantzita dauden beste zenbait iturriren arteko komunikazioaren prozesua zabaltzea.

Arrisku balioztapena eskatzea: arriskuen kudeatzaileek balioztapen taldea osatzen dutenean eta taldeari arrisku jakin baten balioztapena egiteko eskatzen zaionean, komunikazioaren kalitateak bukaerako produktuaren kalitatean eragiten du hasiera-hasieratik. Kudeatzaileen eta balioztapena egiten dutenen arteko komunikazioaren ezinbesteko alderdi dira hauek: helburuaren komunikazioa eta arriskuaren balioztapenaren helmena, denbora eta eskura dituzten bitartekoak, eta datuetan ikus daitezkeen hutsuneak zuzentzeko bitarteko zientifikoak. Bi taldeen arteko topaketa zuzenek osatzen dute komunikaziorako mekanismorik eraginkorrena.

Arrisku balioztapena egiten den bitartean: ezinbestekoa da arriskuen kudeatzaileekin etengabeko komunikazioa izatea. Informazioa eskuratu ahala, argitu nahi diren galderak alda ala berrikus daitezke. Balioztapena prestatzen duten adituen eta kanpoko zientzia komunitatearen, industriaren eta abarren arteko komunikabideak ezarri behar dira.

Halaber, informazio garrantzitsua duten alderdi interesdunak ere gonbida daitezke parte hartzera. Irekitze horrek balioztapenaren azken emaitza aberastu egingo du.

Balioztapena amaitzean: erabakiak hartzeko oso garrantzitsua denez, oro har balioztapenaren emaitza txosten idatzi gisa argitaratzen da. Emaitzak, maiz, konplexuak eta izaera teknikokoak izaten dira; beraz, txostenak garbi eta zuzen idatzi behar dira, gaian adituak ez direnek eskura ditzaten. Fase horretako komunikazioaren arrakasta, neurri handian, parte hartzaileen komunikazio eraginkorrari buruzko eskarmentuaren menpe dago. Arriskuaren kudeatzaileek egiaztatu egin behar dute arriskuen balioztapenaren emaitzak, kudeaketan izango duten eragina eta horiekin elkarturiko zalantzak ezagutu eta ulertu egiten dituztela.

Arriskuaren kudeaketa: kudeatzaileek, beste arrisku batzuen kudeaketan duten eskarmentuaren arabera, arriskuaren kudeaketari buruzko aukera ezberdinak ezagut ditzakete. Baina, fase honetako kontsultak iritzi horiek aldaraz ditzake; batez ere, elikagaien ekoizpen katearen puntu ezberdinetan arriskua kontrolatzeko, kudeaketa aukera zabala baldin badago. Sektore pribatuko adituek eta kontsumitzaileek, elkarteetan ordezkaturik azken horiek, maiz izan dezakete informazio eta ikuspegi garrantzitsuak egon litezkeen kontrol neurriei buruzkoak, horien

Komunikazioa arriskuen analisiaren markoan

eraginkortasunari buruzkoak eta teknika eta ekonomia bideragarritasunari buruzkoak. Hala ere, nahiz eta kontsumitzaileek nahi dutenaren eta industriaren arteko aldeak eta gatazkak izan litezkeen, oso erabilgarri izan daiteke gune erkidea aurkitzea eta bien arteko komunikazio zuzena sustatzea.

Hautaturiko kudeaketa aukera aplikatzea eta jarraipena egitea: arriskuen kudeatzaileek hertsiki eta etengabe aritu behar dute lanean neurriak abian jarri behar dituztenekin, industria dela, kontsumitzaileak direla, administrazioa dela. Eta gainera, euren gaitasunak zer espero duten azaldu behar diete. Halaber, kudeatzaileek beharrezko datuak bildu beharko dituzte, aplikaturiko kontrol neurriek espero bezalako eragina izan duten ala ez balioztatzeko.

2 Arriskuen komunikazioaren hainbat alderdi praktikoa

Komunikazio eraginkorraren abantailak nabarmenak badira ere, komunikazioa ez da beti automatikoki ematen eta ez da beti lortzen erraza izaten. Arriskuen analisia egitean beharrezkoa da komunikazioarekin zerikusia duten alderdiak ongi planifikatzea, bitartekoen konpromisoa izatea, komunikatorako azpiegitura ezartzea eta komunikazioa naturalki emango den giroa sortzea.

Planifikazio horren lehen urratsetan komunikatorako gaia zehaztu behar da eta bertan honako hauek ezarriko dira:

- Zein den komunikatorako gaia
- Nork hartu behar duen parte
- Arriskuen analisiaren prozesuaren zein unetan gauzatuko den komunikazio mota bakoitza

Alderdi interesdunak identifikatzea: maiz zaila izaten da alderdi interesdunak zehaztea edo arriskuen analisia egitean alderdi horien parte hartzea lortzea.

Ondorengo irizpideek egon litezkeen alderdi interesdunak identifikatzen lagun dezakete:

- Nori eragingo lioke arriskuen kudeaketa erabakiak?
- Nork du baliagarri izan litekeen informazioa eta espezializaturiko ezagutza?
- Nork hartu du parte aurretik antzeko arrisku egoeretan?
- Nork adierazi du antzeko erabakietan parte hartu nahi duela?
- Nork hartu beharko luke parte, nahiz eta ez duen eskatu?

Hauek izan litezke arriskuen analisiaren jakin batean parte hartzeko interesa izan lezaketen sektoreak: nekazariak, abeltzainak, arrantzaleak, fabrikatzaileak, elikagaien banatzaileak eta saltzaileak, kontsumitzaileak, osasun publikoko sektorea, osasun arretarako sektorea, ikerketa unibertsitateak eta erakundeak,

Komunikazioa arriskuen analisiaren markoan

administrazioak, lurraldeetako ordezkariak, kultur taldeak, talde etnikoak, sektore pribatuko elkarteak, enpresak, sindikatuak, merkataritza elkarteak, komunikabideak, etab.

Behin alderdi interesdunak identifikatuta, beharrezkoa da horien zeregina zehaztea.

Arriskuak komunikatzeko bideak: nahiz eta gehienetan dokumentu idatziak, txosten zientifikoak eta gobernuaren azterketa ofizialak beharrezkoak izaten diren, komunikazioa eragingarri izan dadin, planteamendu gehigarriak behar dira. Alternatiba ugari egon daitezke arriskuen analisiaren prozesuaren faseetan alderdi interesdun guztien artean informazioa jaso eta emateko, baita alderdi horiek prozesuan inplikarazteko ere.

Gaiaren, alderdi interesdunen kopuruaren, motaren eta izaeraren, eta garatuko den testuinguruaren arabera aukeratzeko planteamendua. Oro har, bilkura publiko handiak ez dira komunikazio gardena lortzeko eraginkorrak izaten, eta horixe lortu nahi du, hain zuzen, Arriskuen Komunikazioak.

Hauek dira mekanismo ezagunenetako batzuk: bilkurak, informazio saioak, eztabaidak, foroak edo kontsulta taldeak eta tailerrak. Badira, hauez gain, bestelako planteamenduak ere: erakusketak, lehiaketak, jarduerak, publizitatea, telebista eta irratia, doako telefono zerbitzuak edo linea zuzenak, web orrialdeak, txostenak, liburuxkak, buletinak, etab.

3 Ondorioak

Arriskuen analisiak arrakasta izateko, ezinbestekoa da alderdi interesdun guztien komunikazio irekia. Horrela, ondoko hau lortzen da:

- PROZESUA GARDENAGOA IZATEA
- ARRISKUAK HOBETO ULERTZEA
- INPLIKATURIKO ALDERDI GUZTIEK PARTE HARTZE HANDIAGOA IZATEA
- KUDEAKETAKO ERABAKI HOBEAK HARTZEA

Azken batean, zenbat eta irekiago izan arriskuen analisiaren prozesua, orduan eta erabaki egokiagoak hartuko dira elikagai arriskuak murrizte aldera.